

EUSKAL GIZARTE HAUTSIA (eta III)

ETXEKO BURRUKAK

Kultur lanean dabilzen gehienek eta —nire ustez— inportanteenak badakite, gorago esandako sintesia irixten lehiatu behar dutela. Eta hortan salatzen dira, bakoitzak ahal duen eta deritzon moduan. Ahalegin eta zeregin berdintsutan ari gara, hortakoz. Jakina, gauza bat da sintesi hura teoriar eta kultur gauzetan (eta kasu bakoitzean lor daitekeen neurrian) burutzea, eta beste bat sintesi hura politikan finkatzea. Hau litzateke garrantzikoena. Hau lorturik balago, uste dut, kultur arloetako problema batzuk sotu ere ez litzazkigukeela egingo. Edo behintzat zeharo bestela planteatu ahal izango genituzkeela. Hizkuntzari buruzko eztabaidak, esaterako, orain arte baino neutralagoak eta "zientifikagoak" izango lirateke, eta ez lehen-lehenik politikoak. Izan ere, hizkuntzaren atxikiarekin funtsean tesi politiko batzuek eztabaidatzen ari gara. Eta hori ez Larresorok bakarrik, ia beti harixe ballarrak egotzen bazaio ere: haren kontrarioak ere, "zu bekataria" esan eta hortanxe berbertan ari bait dira.

Th. Mannek ederki esaten zuen: berdin pentsatu eta diferente sentitzen dutenen artean bakarrik, sortzen dela benetako gorrotoa. Ronekin sarritako egia kurioso bat adierazten da. Diferente pentsatzen duena erraz eragutzen dugu "diferente" bezala. Eta halakoa gehienetan gorroto "abstraktoz" gorrotatzen da: faxismot gorrotatzen da, esaterako. Edo militarrek. Baina militarren batekin edo faxistaren batekin topatzen bazara, lur neutralean, kasi paisaje arrotz bati edo mardupial arraro bati bezala begiratzen diezu. Ez zaitu zeure buruan mehatxatzen. Badakizu, okasioa ailegatuz gero, persegi zaitzakeela, baina zeure hezurak seguruan daduzkazuin artean, badakizu arima ezin harrapa dizazukeela, eta lasai zauden. Berdin pentsatu eta diferente sentitzen duenak, ordea (diferente sentitzeak dakazkien "pentsamentu" diferentekin!), zeure nortasuna mehatxatzen du. Zure segurtasuna arriskuan jartzen du. Irabazi eta mendera zaitzake, barnera zaitzake, eta "konberti" zintezke. Hau zure alter ego bat bait duzu, eta zeure barruko lehiakide. Beraz, bildurtu egiten zaitu.


Eta Kolakowskik ongi antzeman dio bildur honek sortzen duen zuzenbideari:

"Es sabido desde hace siglos que las hogueras se destinan sobre todo a los herejes, y no a los paganos."

"Este odio extraordinario y, como se sabe, carente de toda compasión, mediante el cual casi todas las organizaciones que poseen una ideología política persiguen a sus herejes disidentes, apóstatas y renegados, ese odio mil veces mayor que la repulsa más violenta contra los enemigos manifiestos y reconocidos, es un producto, fácilmente explicable, de aquellas situaciones sociales (si bien no sólo de ellas) en las que una organización política o religiosa se convierte en su propio fin, aun cuando, originariamente, sus creadores lo concibieron sólo como un instrumento... Sectarismo superatu ala, gure arteko diferentzia tipik baino antz haundiei gehiago begiratzen hasiko gatzalzikie."

OINARRIZKO PROGRAMA BATEN PREMIA

Mugimendu honentzat orain arteko dena zabaltzea eta hedatzea izan da: hesparu berriak irikitzea, ideia berriak aurkitzea, estilo berriak probatzea, ikuspegi berriak ezabatzea, bide berriak urratzea, esperimendu berriak entseiatzea, horizonte berriak markatzea, teoria berriak asimilatzea, ekintza berriak deliberatzea. Taldeak han eta hemen espontaneoki sortzen ziren,



asmo berdintsuekin, baina elkarrekin loturirik gabe. Bakoitza bere aldetik ibili da, denok gauza berri bila, eta bata bestearengandik urrundu. Deskubrimenduen garaia izan da. Eta, beraz, diferentziazio prozesu bat izan da gurea funtsean.

Gainera, begiak xabal-xabalik deskubrimenduak egiten zebiltzenak, gasteak ziren. Eta areago, gerra ondoko gauren ondoren, kontzientziaren bizkude bat bezala hasi zen herri-mugimendu hau. Ekintza irme askorik ez da burutu, baina hasera, mila gauzari eman zaio hasera. Eta obretan oraindik pobre bagara, ere aberats gara ideetan, hitzetan, asmoetan. Lan asko egin da, kontzientzia argitzea eta hedatzea. Batek zerbait berriak ikusten bazuen, besteak hurrengoa deskubritzen zuten. Batek alde izkutuaren bat hautesman orduko, besteak besteren bat oharremanda zuten. Batek teoria berriren bat azaldu bezain laster agertuko zitzaion norbait berriago batekin. Ez dugu ezertan pausatzeo eta sakontzeo astirik izan. Batek hamar pauso ematerako, besteak mila eman zituen, eta laster-lasterka haren atzetik joan beharra zegoen, saltoka eta lanean gelditzeo astirik gabe. Gai berrietatuz eta ikuspegi berriak hartuz desarrolatu da herri-mugimendua honen kontzientzia: diferentziazio.

Diferentziazio prozesu hau eta espontaneismo larri hau zerbait kontrolatzen hasi beharra dago. Ekintzak ez bait du kontzientziaren arintasunik eta mugikortasunik: eta kontzientziak ekintzaren zerbiztutan egon behar du. Ekintzak gauza batetan luzaroago gelditzea eskatzen du Ekintza astiro dabil.

Beraz, diferentziazioen gutzi horren erdian nukleo bat, muin edo erdiune bat, finkatu beharra dago. Kontrolik gabeko diferentziazioen zoroan adar berriak botatzen jarraitzea baino beharrezkoago dirudi, jadanik, orain arteko desarrolaren adarrak kintatzea, xedarratzea, mozteia, eta arbola garbitzea. Lur berriak deskubritzen segitzeak baino premiazkoago, lurrok lantzen eta kolonizatzen hastea. Profetan sua baino lagungarriago dirudi, jadanik, kritikoaren lan pazientziasua, ale onak eta txarrak apartatzeko, ideiak galbabetik pasatzeko eta oinarriko ideiak bermatzeko. Ideia edo asmo berri bat deskubritu ondoren, berriagoen bila joan aurretik, haiek ekintzarako gaitu beharra dago. Desarrolaen bertan ere, sistema piska bat ezar dezagun. Pentsatzeokoren ere plan piska bat behar bait du arrazoizko gizonak: ez dago, mitxeletak bezala, lorez lore hegan ibiltzerik, ezertan pausatuta ezinda.

Hau, kulturaren mailan ere egin daitekeena eta egin behar dena, da. Nork berak bere burua autokontrol hortara hezi beharko du. Baina batez ere politikaren mailan egin beharko da hori. Oinarriko programa sotil baten premia sentitzen da: printzipio deklarazioak utz eta, ondorengo urteotako ekintza konkretua programatzen duen eskema bat. Kultur lanerako ere orientazio haundia izango litzateke. Nik hemen nahi nuena, politikoki horixe eskatzea zen, ez predikurik predikatzea: kultur lanean dabilzen gehienek premia horixe sentitzen dutelakoan. Desorientazio izugarria bait dago.

ARRAZOIZKO EZKER BAT

Horatio, "beste guztiak ezkerreko edo eskumakotzat (eskuinekotzat) salatuz, ipurdia erdi-erdian ipini nai leukenaren" asmorik batera ez dut nik. Bai, zentro kontsebadore, liberal eta pragmatik indartsu bat antolatzea, gure premiari larrienetakoa iruditsun zait Euskal Herrian (Eta honen premia gar: sentitzen da: demokratia izandako batzue ez dira bestegatik Jaungoikoaren obrara pasatu. Denak ez dira oportunistoz ari! Pragmatismo egarria ikusten da). Ni neuz biziki pozituko nintzateke, horrelakorik burutuko balitz (eta ogibide teknikoetakoek, positibistek, pragmatikoen, etc., horrelako zerbaitetara jo beharko dutela, iruditzen zait, inora jotzekotan). Hau bai, onar nezake arrazoizko eta beharrezko eskuintzat. Ez eskuintzat, ez arrazoizkotzat, eta ez beharrezkotzat, AGUR-en moduko ultrak onets nitzake: horiek ez dira eskuineko. Nire ustez, arrazoizkotasun kategoria guzietatik kanpora gelditzen dira.

Arrazoizko zentro demokratiko bat sortzeari bezalaxe, arrazoizko ezker bat sortzeari ere premia bizibizkoa eritzen diot: eta nik neuz azkeneko eginkizun honetan salatu nahi nuke. Orain ez dio inportatzen, bi eginkizunak arrazoizkotzat eta beharrezkotzat badihit zergatik nerretzat nik bigarrena hobesten dudana. Baina gauza batez seguru nago: gaurko eskuinkeria eta ezkerkeria zoro aso menderatu, eta zentro eta ezker zentzudun horiek sortzen badira, elkar osatzen eta elkar ukatzen dutenak, izango direla; hau da, elkarri eragiten diotenak. Eta orduan errazagoa izango dela, elkar aditzea eta elkar hartzea ere. Eta orduan, gaur galzen duenak iritengo du irabazten: Euskal Herriak. Hots, euskal herriak.

Zeren-eta, gaur, Euskal Herria bere baitan hartuz gero, mila kontradizioan nahasturik agiri bait zaigu. Eta zurrubildion mugitzen da. Kontradizio nagusi hortara ailegatzen bada, beriz zurrubildiotik irten eta aurrerabide, dialektiko bat segi dezake, eta iraultza jasagarria izango da. Kontradizio nagusia eskuin radikalaren eta ezker amorratu radikalaren artean formatzen bada, aldir, bildugarria izango da iraultza, edo-ta odol askoren ondoren denok porrot eginen dugu.

JOXE AZURMENDI

Txomin Amasorrain



Txomin Amasorrain

ra, ona, errukiz beteak langille porrokatua, euskaltzale fina.

Inork gutxiak itzegingo du gaizki errian Txominetaz. Bere sasoiari lantegi aundi bateko arduradun izan zan. Langilleak ondo zeintzen eta ondo oraindik eukitzen alegindu zan. Eztabaida guztietan elkarriketarako prest egon oi zan. Bazekian zenhaiten utsegiteak isilik gordezten ere eta zigortu gabe uzten.

Bergarako mendigoizaleen buru zian gure aurtzaroan, guk ezagutu genuenean. Badakita berarekin ibiltzen ziranak nun zuten lagun on bat.

1965 garren aldera "Ernai" izeneko antzerki taldea sortu zuan. Zentat lan egin duen geroztik. Taldea zuzentzen, antzerkiak euskeratzen. An zegoan beti Txomin gertu zerbait egin edo euskeratu bear zaezan, beti alai.

Baziran urte batzuk elbarritu zala. Ala ere an aurkituko genuen gaueko EUSKAL IKASTOLAN zekian guztia erakusteko prest. Berarekin ibili geranok dakigu zenbaterainoko ardurua eta arreta jartzen zuan.

Ezaguna zan Txomin ZERUKO ARGIAKO irakurleentzat. Emenxe agertzen zianuan Mondragoiko gorabehera eta xelebrakeriak. Emenxe ikusten genituen "mondrauetarren" izkirimiriak.

Ez dira Txominen lanak alferrik ustelduko. Emango du onen aziak frutua. Euskaltzaletasuna eta euskal idazleak indartu eta ugalduko dirala uste dugu Txominen eraginaz

Goian Bedi Txomin. Eta ar bezate gure samin agurra beronen amantz, semea, anaia-errebata eta aaide guztiak. Agur, Txomin. Egun aundira arte.

MENDIKOI

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Herriari, 4

DONOSTIA

TRANSPORTES



ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOTAI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Al. cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean Iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo-ra.

Carrtera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA

Telefonoak: 450313 eta 459723

Apto. 1381

Apto. 1381